

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure proiektua enpresei erakusteko showroom bat antolatuko dugu, bertan guk pentsatutako gela ikusteko aukera izango dute. Lokal bat alokatuko dugu denbora batez eta bertan teknologiaz betetako gela hau muntatuko dugu horrela enpresek gure ideia edo proiektua ikusteko aukera izango dute eta gustuko badute gurekin lan egitea erabakitzen lagunduko die ikusteak. Erabiliko dugun beste bide bat, sare sozialak dira. Bertan, enpresen artean ezagunak egiteaz gain, ikasleen artean ere ezagunak egingo gara. Egia da, enpresek dutela azken erabakia baina ikasleek gure proiektua bultzatzen badute, enpresen erabakian eragina izan dezakete. Internetari dagokionez, webgune bat sortuko genuke enpresek gure proiektuari buruz informazioa ezagutu dezaten. Bertan, gure proiektua 3D bidez ikusteko aukera izango dute, eta atal desberdinekiko informazio espezializatua emango dugu. Gainera, hobeto ulertzeko bideoak jarriko genituzke.

